

Eskutitz arriskutsuak

Javier Rojo

"Harreman arriskutsuak"
Choderlos de Laclos
euskaratzailea: Jon Muñoz
Ibaizabal, 1997

Choderlos de Laclos-en Harreman arriskutsuak eleberriaren euskal itzulpena agertu berri da gure artean. Istorioa, azken urte hauetako filme batzuei esker, ez zaigu ezezaguna: Valmonteko bizkondeak eta Merteuileko markesak joku bitxi bat antolatu dute gazte batzuk seduzitzeko; benetako jokua, ordea, beraien artean ematen da. Eleberria idazteko, eskutitzen artifizioa erabili du idazleak, joku horretan parte hartzen duten pertsonaiek elkarri bidalitako gutunena, hain zuzen. Hauek, tonuz eta estiloz, oso ezberdinak dira, fikziozko idazlearen nortasuna isladatu nahi dute-eta. Honetan izan du itzultzaileak (Jon Muñoz) bere arazo nagusia. Batetik, garaiko tonua eman nahi izan dio itzulpenari (gogoratu liburu hau XVIII. mendekoa dela) eta horretarako lapurtera klasikoari asko zor dion idazkera hautatu du; bestetik, pertsonaien estilo berezkoa ere erakusten saiatu da. Aitortu behar dut batzutan irakurketa zaila gertatu zaidala. Zailtasun hau, ordea, ez diogu itzultzaileari egotzi behar: istorioa konplexua da, bidezidor askorekin eta zehar-aipamenez beteta. Patxadaz irakurtzeko liburua da, oso euskara kultoan dagoena. Hauxe da itzulpenaren birtuterik handiena; baita irakurle arrunt batek aurki dezakeen oztoporik handiena ere.

El Correo, 1998-03-04